

Euskal Biblioteka Nazionala

Pruden Gartzia

1.-TESTUINGURU HISTORIKOA

Euskal Herrian, biblioteki dagokienez, funtsean orain dela ehun urteko egitura bera dugu. Aldundi bakoitzak berea, eta udal bakoitzak beste horrenbeste. Ukaezina da azken bi hamarkadetan ahaleginak egin direla biblioteka berriak zabaltzeko eta zeudenak modernizatzeko, baina salbuespenak salbuespen bakoitza bere aldetik dabil, eta beraien arteko loturak oso makalak dira. Egun, elkarlana oso kontu zehatzetara dago mugatua.

Zergatik ez dago biblioteka guzti horiek koordinatuko lukeen Biblioteka Nazional bat? Proiektua ez da berria: Eusko Ikaskuntzaren Igo Biltzarrean (Oñati, 1918), Euskal Unibertsitatearen eskaerarekin batera, Euskal Biblioteka bat sortzeko proiektu bat aurkeztu zen (Tomas Etxebarria: *Proyecto de creación de una biblioteca exclusivamente vasca*). Ez zetorren "nazional" izenondoaz lagundurik eta soilik euskal gaietara mugatuko zitzatekeen biblioteka aldarrikatzen zen (zentzurik zabalenean hartuta, hori bai). Baina **erakunde berria** izango litzateke, hots, 1918an garbi ikusten zuten **erakunde berri bat behar zela** euskal kulturaren premiei erantzuteko; ez zela nahikoa egitura zaharrak indartzea eta modernizatzea. Gaur egun, ditugun biblioteka-egituren mugak eta erakunde berri baten beharra inoiz baino nabarmenagoak dira.

Nolako erakundea zehazten hasita, berriz, planteamendu bat baino gehiago egin daitezke. Duda barik, 1918ko proiektua, bere horretan hartuta, neurri batean baino ez da baliagarri gaur egun. Aldaketa franko izan dira ordutik hona. Badago zertaz hitzegin, zertan sakondu, hausnartu. Tabuak eta fetitxeak, biak apurtu behar dira. Ez dut zeruan idatzita ikusi nolako biblioteka behar dugun. Bi gauzatan, ordea, ados egon gaitzake danok: Euskal Herri osoko biblioteken arteko harremana bultzatu behar da, eta harreman horietan euskara da oinarria eta giltzarria. Arazo politikoak (noiz eta non ez daude?) ez dira, ez lukete izan beharko, bi baieztapen horien gaineko adostasuna piztatzeko gauza.

2.- LEGE TESTUINGURUA

Ezen, gaur egungo legeria berez nahikoa eta sobera da Biblioteka Nazionala sortzeko, borondaterik badago. Ikustagun. Nere uste apalean, abiapuntua honako hau izan beharko luke: egungo Euskal Herria, sozialki, herri eleaniztuna da. Eleaniztasun horretan historikoki galtzaile bat egon da: euskara. Hori dela eta, azken hogeit bat urtetan euskara Euskal Herriko zati batzuetan hizkuntza ofiziala bihurtu da, eta ahalegin bereziak egin dira eta egiten ari dira pairatu duen bidegabekeria historikoa leuntzeko eta elebitasun orekatua lortzeko. Kontu ezagunak dira horiek, jakina, baina euskarari buruz horrenbeste arduragabekeria entzuten den egunotan ez da alperrikakoa berriz ere gogoratzea¹. Azpimarratu beharko genuke, hala ere, horrenbeste gogoratzen ez dena, alegia, Eusko Jaurlaritzak hitzarmenak egin dezakeela eta egin behar dituela beste erkidego edo estatuekin euskara eta euskal kultura gorde, zaindu eta sustatu aldera².

Badirudi, beraz, euskara ofiziala izatez gain kultur-ondare bereziki garrantzitsua denez gero³, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak legez batere oztoporik ez dutela elebitasuna biblioteketara eramateko, zein bere erkidegoan edota elkarren artean elkar-laguntza hitzarmenak sinatuz. Horretarako tresna egoki bat, egokiena ziur aski, batek bere aldetik edota bien artean Euskal Biblioteka Nazionala sortzea litzateke, erakunde horrek bidera dezan euskarari buruzko erabaki tekniko guztiak⁴ Bibliotekonomiaren esparruan. Goraki esan dezagun, bada, legeriaren ondorio logikoa: Euskal Biblioteka Nazionala bezalako proiektu bat egitea, **izen horrekin edo beste batekin**, egungo legeriaren arabera erabat posiblea da. Areago, Eusko Jaurlaritzaren kasuan legeak berak helburu hori paratzen dio⁵. Komenigarria litzateke Estatutuaren eta Foru Hobekuntzaren aldekoek zein kontrakoek oinarritzko datu hori bistatik ez galtzea.

3.-EUSKARAREN EGOERA BIBLIOTEKETAN

Arrazoi asko dago Biblioteka Nazional bat eskatzeko. Baina badago bat, nire aburuz, guztien gainetik gailentzen dena: euskararen normalizazioa. Ezen eszeptikoan ere aitortuko du Biblioteka Nazional bat ez bada sortzen, euskararen normalizazioak oztopo izugarriak izango dituela bidean.

Zer egin dute orain arte Herri Aginteez legeak agindutakoa betetzeko, alegia, elebitasuna sustatzeko biblioteketan? Erantzun laburra emango dugu: Bibliotekonomiaren esparruan, une honetan dakigunaren arabera, oso gutxi.

Labur erantzuteak badu bere arriskuak. Kasu honetan, begibistakoa da azken urtetan euskarak aurrerakada handia egin duela administrazioan, eta ondorioz, baita biblioteka askotan ere. Horrela, euskaraz dakien bibliotekari asko dago egun lanean, eta lanpostu askotarako (ez nahikotarako, ordea) euskara jakitea eskatzen da. Era berean, errotulazioan, oharretan, ordenagailuen menuetan, eta abar, euskarak badu presentziarik, gero eta haundiagoa gainera. Baina guzti hori administrazio osoaren eskalduntze orokorrari zor zaio (hizkuntza-eskakizunak, udal ordenantzak, etab.). Esaten ari garena da Bibliotekonomiaren esparru teknikoan, salbuespenak salbuespen, ez dugula arazo honen tamainari erantzuteko gai den ekimenik ezagutzen.

Har dezagun adibiderik nabarmenena. Denok dakigun bezala, katalogoa da edozein bibliotekaren lan-tresna nagusia, berak ematen baitu zerbitzu guztietara iristeko giltza. Zenbat biblioteka-katalogo egin dira euskaraz? Baina agian galdera ez dago ondo paratua, ezen euskara ofiziala den Euskal Herriaren zatian, legean eta gizartean elebitasuna dugu erreferentzia nagusi. Galde dezagun, bada, zenbat katalogo elebidun dago Euskal Herrian? Kasu biotan erantzuna berbera da: oso-oso gutxi, salbuespen bakan batzuk⁶. Erakunde-erakundeko erreposao eginez, esan dezakegu Bizkaiko eta Gipuzkoako Aldundietako bibliotekak ahalegin batzuk egin dituztela, nahiko motz gelditu badira ere; Eusko Jaurlaritzak hainbat aldiz gai-zerrenda elebidun bat iragarri du, oraingoz bukatu gabea: azken horren menpekoak diren hiru erakundetako bibliotekak (HABE, SHEE-IVEF eta HAAE-IVAP) ahalegin ausartak egin dituzte, baina laguntza premia handia aitortzen dute; Udalek ez dute ezer egin⁷; Unibertsitateek (publiko zein pribatuek) ez dute ezer egin⁸; eta abar. Azpimarra dezagun beti ere Bibliotekonomiaren esparru teknikoari buruz ari garela.

Bada garrantzi berezia duen beste gai bat: programa informatikoena. Egun, katalogo guztiak formato elektronikoan egiten dira. Eta hemengo hutsunea biziki larria: gaur egun biblioteketan erabiltzen diren programak ez daude gertatuta katalogo elebidunak kudeatzeko. Salbuespenak salbuespen, arazo hori ez da kontuan izan programa informatikoa erosteko orduan⁹. Izango ote da aurrerantzean?

Horrelako egoera batean, ba ote dago inork pentsatzen duenik euskara normalizatuko dela Biblioteka Nazionalik gabe?

4.-EUSKALTZAINDIAREN LANA

Gaur egun euskarazko katalogogintzan martxan den proiekturik sendoena Euskaltzaindiaren *Azkue Bibliotekaren Katalogoa* da. Aurreikuspenen arabera, 2000. urtean bukatuko da eta, beraz, data horretatik aurrera izango dugu Humanitateetan espezializatutako biblioteka baten katalogo oso bat euskaraz, formato informatikoan eta nazioarteko arau bibliotekonomikoan arabera egina.

Euskaltzaindiak borondate garbia adierazi du horren emaitza teknikoak zabaltzeko, eta hori dela eta hainbat bilera egin izan ditu zenbait erakundetako ordezkariekin. Baina, dudarik ez dago, Biblioteka Nazional batek asko erraztuko luke proiektu horren emaitzen hedapena.

5.-NOLAKO BIBLIOTEKA NAZIONALA

Egungo egoeran ez dirudi erreza Euskal Herriko hiru erkidegoen artean erakunde amankomun bat sortzea. Baina Eusko Jaurlaritzak ez du aparteko arazorik Euskal Biblioteka "berri", "nagusi", "nazional", edo dena delako bat sortzeko. Horrela jokatu dute, bestalde, Espainiako autonomia erkidego ia guztietan. Erakunde horrek biblioteka nazional baten eginkizunak bereganatuko litzuke EAERI dagokionez, eta Nafarroa eta Iparraldeko bibliotekekin harreman eta elkar-laguntza hitzarmen berriak sortzeko gai izango litzateke. Gutxiegi ote, zenbaitentzat? Euskal Herriko zazpi herrialdeek politikoki bat egingo balute ere (zinez zaila dirudien hipotesia!), hortik sortuko litzatekeen biblioteka-sistema ere oso dezentralizatua litzateke, gure herriaren historiari dagokion bezala.

Gai asko geratu zaigu tratatzeko. Zeintzuk liratekeen Biblioteka Nazionalaren eginkizunak. Non kokatua legokeen. Nor litzatekeen titularrak. Zein harreman mota izango litzatekeen Euskal Herriko gainetiko biblioteka guztiekin (motaz-mota zehaztu beharko litzateke). Eta abar.

Gai horiekin eta beste askorekin kezkatuturik, zenbait bibliotekarik eta dokumentalistak *Joana Albret Bibliotekonomia Mintegia* sortu genuen orain dela hiru urte. Artikulu honetako hausnarketa asko eta asko, hantxe sortuak eta landuak dira. Hilean behin biltzen gara Donostiako Koldo Mitxelena. Hortaz gain, posta-zerrenda bat sortu dugu eta, aurki, webgunea izatea espero dugu.

Pruden Gartzia
Azkue Bibliotekako zuzendaria
Euskonews, 81. zenb., 2000-6-2/9

1 Euskara Euskal Autonomia Erkidego osoan (1979ko *Estatutua*, 6.1 atala) eta Nafarroako Foru Erkidegoaren zati batean (1982ko *Foru Hobekuntza*, 9.2 atala) ofiziala da. Horrek esan nahi du administrazioaren jarduerak guztiak elebitasunaren printzipioaren arabera antolatu behar direla. Aldiz, Nafarroako zati handi batean euskararen estatusa apalagoa da, eta Frantziako Errepublikaren lurralde osoan ez du inolako estatusik.

2 Ikus 79ko Estatutuaren 6.5 atala: "Euskara beste euskal lurralde eta komunitate batzuetako ondarea ere izanik, erakunde akademiko eta kulturazkoek beroriekin izan ditzaketen harreman eta loturez kanpo, Euskal Herriko Komunitate Autonomoak eskatu ahaliko dio espainol Gobernuari lurralde eta komunitate horiek kokaturik daudeneko Estatuekin itunak eta komenioak egin ditzala-- eta halaber behar izanez gero Gorte Jeneralei horretarako eskabidea ager dezan, berauek hura onartzeko--", **horretara euskara zaindu eta bultzatzen** [enfasia neurea da]". Baita ere *Euskal Kultur Ondareari buruzko Legea*, 7/1990, 8. atala: "1. Jaurlaritzak, euskal kultur ondarea aldeztuko, babesteko eta sustatzeko lagungarritarako, Nafarroako Foru-Elkartearik **lankidetzaren ituneak egin eta harremanak izateari bultzatzen** [enfasia neurea da]. 2. Halaber, Euskal Herriko Autonomi Elkartek Estatuko Jaurlaritzari, euskal kultur ondarea osatzen duten ondasunak beren lurretan ditzuteneko Estatuekin kultura-hitzarmenetan jartzeko bide emango duen hitzarmen nahiz ituneak egin eta, hala behar izanez gero, horiek onartzeko Gorte Nagusietan aurkez ditzala eskatu ahal izango dio."

3 Ikus *Euskarari buruzko Foru Legea*, 18/1986: "Nafarroa bezala beren ondarean hizkuntza bat baino gehiago edukitzeaz ondartzeko diren Komunitateak, **altxor hori begiratu eta babestera behartuak dira, baita hura hondatu eta galtzea eragoztera ere** [enfasia neurea da]."

4 Erabaki teknikoak dlogu, ezen erabaki politikoak lurralde bakoitzean dagokion erakundeak hartuko baititu, jakina.

5 Ikus 2. oin-oharrean Kultur Ondareari buruzko Legearen 8.1 atala.

6 *Azkue Bibliotekaren Katalogoa* alde batera utzita, euskara hutsezko hiruzpalau katalogo baino ez ditut ezagutzen: Bertsozaleen Elkarteko Xepelar Dokumentazio Zentruko katalogoa, HABEko bibliotekakoa, SHEE-IVEF erakundekoa, eta besteren bat. Katalogo elebidunen artean, Bizkaiko eta Gipuzkoako Aldundien bibliotekak zenbait neurri hartu dituzte, baina elebitasun orekatutik urrun daude oraindik. Gainetikoetan, ezer ez (pozik hartuko dut baieztapen borobil horri eginiko edozein zuzenketa).

7 Zenbait udalek, Gipuzkoan batez ere, kezka bizia agertu diote Eusko Jaurlaritzari gai hau dela eta, berehalako neurriak har ditzan eskatuz. Era berean, nabarmen utzi dute beraien ezintasuna horrelako arazo tekniko korapilatsu bati irteeraren bat aurkitzeko.

8 Berriki onartu den UPV/EHUko Euskararen Erabileraren Normalizazioarako II. Plangintzan lehenengo aldiz aipatzen da arazo hau, zenbait neurri proposatuz, Euskaltzaindiarekin elkarlanean. Ikus 7.3.2. atala, *Liburutegiaren Katalogoa*.

9 Berriz ere zehaztuko dugu gauza bat dela programa informatikoaren menuak bi, hiru edo hainbat hizkuntzatan agertzea (erabiltzailearen aukeran), eta guztiz bestelako bat katalogoa bera elebiduna izatea.